

TOKI ADMINISTRAZIOA

3

ADMINISTRACIÓN LOCAL

LASARTE-ORIAKO UDALA

*Euskaraldia: Lasarte-Oriako bideo laburren lehiaketarako oinarriak.*

2025eko martxoaren 06ko 2025/406 zenbakidun dekretuaren bidez, Lasarte-Oriako bideo laburren lehiaketarako oinarriak onartu ziren.

OINARRIAK

I. Xedea.

Oinarri hauen helburua da Euskaraldia dela-eta Lasarte-Orian antolatutako bideo laburren lehiaketari lotutako sariak emateko prozedura arautzea.

II. Araudia.

- Dirulaguntzei buruzko udal-ordenantza.
- 38/2003 Lege Orokorra, azaroaren 17koa, dirulaguntzei buruzkoa.
- Oinarri arautzailea bera.
- 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Prozedura Administrazio Komunarena.

III. Parte hartzeko eskubidea.

Lehiaketan parte har dezake Lasarte-Orian bizi den, ikasten duen edo lan egiten duen 16 urtetik gorako edozein herritarrek (2008ko urtarrilaren 1etik aurrera jaiotakoak). 16 urtez behera-koek familiako modalitatean bakarrik parte har dezakete.

IV. Lanen ezaugarriak.

- Bideoaren mezu nagusia honako hau izango da:  
«Merezi du Euskaraldian parte hartzea!».
- Bideoetako hitzak, idatzizkoak zein ahozkoak, euskaraz izan dira.
- Bideoek, gehienez ere, minutu bateko iraupena izango dute (kredituak barne).
- Edozein genero edo estilotakoa izan daiteke lana: kantak, dantzak, antzerkiak...
- Bideoek titulua eta gaiaren deskripzio laburra izan beharko dute.

V. Lanak aurkezteko modua.

Bideoak igotzeko jarraibideak Lasarte-Oriako Udalaren webgunean ([www.lasarte-oria.eus](http://www.lasarte-oria.eus)) egongo dira eskuragai. Bertan, bideoak formulario bidez kargatzeko aukera egongo da, Drive lortura baten bidez.

Bideoak telefono mugikorrarekin grabatuko dira, modu horizontalean nahiz bertikalean; hala ere, bideoak horizontalean emango dira ezagutzera jendaurrean.

Hiru modalitate izango dira parte hartzeko:

1. Banaka edo binaka.
2. Familiar.
3. Taldean (hiru lagun edo gehiago).

AYUNTAMIENTO DE LASARTE-ORIA

*Euskaraldia: Bases para el concurso de videos cortos de Lasarte-Oria.*

Por decreto n.º 406/2025 de fecha 06 de marzo de 2025 se han aprobado las bases para el concurso de videos cortos de Lasarte-Oria.

BASES

I. Objeto.

El objeto de estas bases es regular la concesión de los premios asociados al concurso de vídeos cortos de Lasarte-Oria, con motivo de la celebración del Euskaraldia.

II. Normativa.

- Ordenanza Municipal de Subvenciones.
- Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones.
- La propia base reguladora.
- Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.

III. Derecho de participación.

Pueden participar en el concurso cualquier persona mayor de 16 años (nacidos a partir del 1 de enero de 2008) que viva, estudie o trabaje en Lasarte-Oria. Los menores de 16 años sólo pueden participar en la modalidad familiar.

IV. Características de los trabajos.

- El mensaje principal del vídeo será:  
«Merezi du Euskaraldian parte hartzea!».
- Los textos de los videos, tanto escritos como orales, serán en euskera.
- Los vídeos tendrán una duración máxima de un minuto (créditos incluidos).
- Los videos pueden ser de cualquier género o estilo: canciones, danzas, teatros...
- Los vídeos deberán tener un título y una breve descripción del tema.

V. Presentación de los trabajos.

Las instrucciones para subir los vídeos estarán disponibles en la página web del Ayuntamiento de Lasarte-Oria ([www.lasarte-oria.eus](http://www.lasarte-oria.eus)). En la página web se podrán cargar los vídeos mediante un formulario, y utilizando un enlace Drive.

Los videos se grabarán con el teléfono móvil., de forma horizontal o vertical; no obstante, los vídeos se darán a conocer públicamente de forma horizontal.

Habrà tres modalidades de participación:

1. Individual o por parejas.
2. Familiar.
3. Grupos (tres o más personas).

Kategoria bakoitzean bideo bakarra onartuko da partaide bakoitzeko.

*VI. Lanak aurkezteko epea.*

2025eko martxoaren 12tik apirilaren 28ra bitartean aurkeztu ahalgo dira bideoak.

*VII. Lanak bozkatzeko epea.*

2025eko maiatzaren 5etik 11ra bitartean bozkatu ahal izango dira bideoak.

*VIII. Sariak.*

Modalitate bakoitzean bi sari izango dira:

1. Bozkatuaren saria: 500,00 €.

Botoa emateko epea maiatzaren 5etik 11ra izango da. Pertsona bakoitzeko boto bakarra onartuko da.

2. Epaimahaiaren saria: 1.000,00 €.

Aditu-talde batek izendatuko du modalitate bakoitzeko bideo irabazlea.

Sariak bidaltzailearen izenean emango dira, eta PFEZari dagokion diru-kopurua atxikiko zaio.

Modalitate bakoitzeko diru-kopuruaz gain, Euskaraldiko materiala ere jasoko dute irabazleek.

Epaimahaiak sariren bat eman gabe uzteko ahalmena izango du.

Gastu hau 2025 urteko 1600022606335102025 aurrekon-  
tuko aplikazioaren kontura ordainduko da.

*IX. Epaimahaia.*

Lau adituk osatutako epaimahaiak erabakiko ditu sariak, be-  
tiere aurkeztutako lanek mezu nagusiarekin duten lotura (Me-  
rezi du Euskaraldian parte hartzea!), originaltasuna, umorea eta  
sormena kontuan hartuta.

Honako hauek izango dira epaimahaiakideak:

- Lasarte-Oriako Udaleko Euskara Zerbitzuko zinegotzia.

- Ttakun Kultur Elkarteko zuzendaritzako kidea: Inma Muñoa.

– Komunikazioaren arloko bi aditu. Idoia Telleria eta Jokin Ayerregaray.

Epaimahaiakideek ezingo dute lehiaketan parte hartu bidalt-  
zaile moduan.

*X. Sari-banaketa.*

Sari-banaketako ekitaldia 2025eko maiatzaren 15ean izan-  
go da, Euskaraldiaren hasierako ekitaldian.

*XI. Eskubideak eta betebeharrak.*

Antolatzaileak ez dira bideotan egiten diren adierazpenen eta  
erabilitako irudi edota jasotako iritzien erantzule.

Lasarte-Oriako Udala izango da antolatzailea, Ttakun Kultur  
Elkartearen lankidetzarekin.

Egileak aitortzen du aurkeztutako lanaren eta haren edukia-  
ren arduraduna dela.

Erreproduktzioarako eta zabalkunderako eskubideak:

– Lasarte-Oriako Udalarenak izango dira bideoetako irudien  
komunikazioko eta erreproduktzioko eskubideak.

– Antolatzaileek beren gain hartzen dute bideo batzuk lehia-  
ketatik kanpo uzteko eskubidea; batetik, giza eskubideen urraketa,  
bortizkeria, irainak, arrazakeria, sexismoa edota errespetu falta  
adierazten duten lanak, eta, bestetik, aurretik aipatutako bal-  
dintzak betetzen ez dituztenak.

Informazio gehiago: Lasarte-Oriako Udaleko Euskara Zerbi-  
tuan: 943.376.184. Posta elektronikoa: euskara@lasarte-oria.eus.

En cada categoría sólo se admitirá un vídeo por participante.

*VI. Plazo de presentación de los trabajos.*

Los vídeos se podrán presentar del 12 de marzo al 28 de  
abril de 2025.

*VII. Plazo de votación de los trabajos.*

Los vídeos se podrán votar del 5 al 11 de mayo de 2025.

*VIII. Premios.*

En cada modalidad habrá dos premios:

1. Premio al vídeo más votado: 500,00 €.

El plazo para votar será del 5 al 11 de mayo. Sólo se admi-  
tirá un voto por persona.

2. Premio del jurado: 1.000,00 €.

Un grupo de expertos nominará el vídeo ganador en cada  
modalidad.

Los premios se entregarán a nombre del remitente y estarán  
sujetos a la retención de IRPF.

Además de la cantidad económica de cada modalidad, las  
personas ganadoras también recibirán material de Euskaraldia.

El jurado podrá declarar desierto alguno de los premios.

Este cargo se abonará con cargo a la aplicación presupes-  
taria 1600022606335102025.

*IX. Jurado.*

Un jurado compuesto por cuatro personas expertas decidirá  
los premios, teniendo siempre en cuenta la conexión con el  
mensaje general (Merezi du Euskaraldian parte hartzea!), la ori-  
ginalidad, el humor y la creatividad de los trabajos presentados.

El jurado estará compuesto por:

– La concejala del Servicio de Euskera del Ayuntamiento de  
Lasarte-Oria.

– Un representante de Ttakun Kultur Elkartea. Inma Muñoa.

– Dos personas expertas en comunicación. Idoia Telleria y  
Jokin Ayerregaray.

Los miembros del Tribunal no podrán participar en la com-  
petición como remitentes.

*X. Entrega de premios.*

El acto de entrega de premios tendrá lugar el 15 de mayo de  
2025 en el acto de apertura del Euskaraldia.

*XI. Derechos y deberes.*

Las personas organizadoras no son responsables de las ex-  
presiones, imágenes utilizadas y/o opiniones recibidas en estos  
vídeos.

El Ayuntamiento de Lasarte-Oria, con la colaboración de Tta-  
kun Kultur Elkartea, serán los organizadores.

El autor se declara responsable del trabajo presentado y de  
su contenido.

Derechos de reproducción y difusión:

– Los derechos de comunicación y reproducción de las imá-  
genes de los vídeos serán del Ayuntamiento de Lasarte-Oria.

– La organización se reserva el derecho a excluir del concur-  
so aquellos vídeos que supongan una violación de los derechos  
humanos, violencia, insultos, racismo, sexismo o falta de res-  
peto, así como aquellos que no reúnan los requisitos anteriorme-  
nte mencionados.

Más información: Servicio de Euskera del Ayuntamiento de  
Lasarte-Oria: 943.376.184. E-mail: euskara@lasarte-oria.eus.

*XII. Baldintzen aldaketa.*

Aurreikusi gabeko gertakariren bat suertatuko balitz, lehiaketako oinarri hauek aldatzeko aukera antolatzaileen esku gelditzen da, hau da, Lasarte-Oriako Udaleko Euskara Zerbitzuaren esku.

Lasarte-Oria, 2025eko martxoaren 6a.—Agustin Valdivia Calvo, alkatea. (1882)

*XII. Modificación de las condiciones.*

En el caso de que se produjera algún hecho no previsto, la posibilidad de modificar estas bases del concurso queda en manos de la organización, es decir, del Servicio de Euskera del Ayuntamiento de Lasarte-Oria.

Lasarte-Oria, a 6 de marzo de 2025.—El alcalde, Agustin Valdivia Calvo. (1882)